


HITZETIKIN

# Vianako eta Arabako Errioxako korrika

Bastidatik Biasterira - Vianatik Biasterira  
2022ko apirilaren 9an



## Arabar Errioxako eta Vianako Korrika

Korrikaren 22. edizioa Vianatik eta Arabako Errioxatik pasatuko ez bada ere, **bai Vianan eta bai Arabako Errioxan Korrika** izango dugu.

Inguru honetako herrietako jendea elkartu, eta **apirilaren 9an** herri guztietatik pasatuko den Korrika antolatu dugu.

Izan ere, eskualde honetan ere ezinbesteko ditugu Korrikak helburu dituen euskararen aldeko kontzientzia piztea eta helduen euskalduntzea sustatzea.

Vianako eta Arabako Errioxako Korrika antolatzeko, Korrika ofizialaren babes eta laguntza izan dugu, eta, hala, kilometroak korritzeko erabiliko diren petoak, kartelak eta abarrak Korrika 22. ediziokoak dira.

Bi zutabe izango ditu hemengo Korrikak eta biak Biasterin elkartuko dira: bata, Bastidatik irtengo da: **Bastida (10:00etan), Mañueta (12:23an), Eskuernaga (12:52an), Samaniego (13:21ean), Leza (13:56an), Paganos (14:43an), Nabaridas (15:12an), Zieko (15:49an), Lapuebla Labarka (16:39an) eta Biasteri (17:30ean).** Bestea, Vianatik irtengo da: **Viana (9:30ean), Moreta (10:17an), Labraza (11:04an), Gorrebusto (11:39an), Oion (12:56an), Iekora (14:02an), Biñaspre (14:30ean), Lantziego (15:08an), Kripan (15:58an), Bilar (16:43an) eta Biasteri (17:30ean).**

Bi zutabeek bat egingo dute **Biasterin, eta jai bikaina** antolatu dugu: txosna, umeentzako jolasak, kontzertuak...

## Korrika de Rioja Alavesa y Viana

Aunque la 22ª edición de Korrika no pasará por Viana ni Rioja Alavesa, **tanto en Viana como en Rioja Alavesa tendremos Korrika.**

Nos hemos juntado gente de los pueblos de esta zona y hemos organizado la Korrika que pasará por todos los pueblos **el 9 de abril.**

Y es que también en esta comarca es imprescindible despertar la conciencia a favor del euskera, objetivo de Korrika, y fomentar la euskaldunización de adultos/as.

Para organizar Korrika de Viana y Rioja Alavesa hemos contado con el apoyo y la ayuda de la Korrika oficial, y así, los petos, carteles, etc. que se utilizarán para correr los kilómetros, pertenecen a la 22ª edición de Korrika.

La Korrika tendrá dos recorridos: uno que partirá desde **Labastida (10:00h), pasará por Baños de Ebro (12:23h), Villabuena (12:52h), Samaniego (13:21h), Leza (13:56h), Paganos (14:43h), Navaridas (15:12h), Elciego (15:49h), Lapuebla Labarka (16:39h) y terminará en Laguardia (17:30h).** Y otro que saldrá desde **Viana: Viana (9:30h), Moreda de Álava (10:17h), Labraza (11:04h), Barriobusto (11:39h), Oyón-Oion (12:56h), Yécora (14:02h), Viñaspre (14:30h), Lanciego (15:08h), Kripan (15:58h), Elvillar (16:43h) y Laguardia (17:30h).**

Las dos columnas confluirán en **Laguardia**, donde hemos organizado una **estupenda fiesta**: txosna, juegos infantiles, conciertos...